

Convención relativa a la lucha contra las discriminaciones en la esfera de la enseñanza

Adoptada el 14 de diciembre de 1960 por la Conferencia General de la Organización de las Naciones Unidas para la Educación, la Ciencia y la Cultura.

Entrada en vigor: 22 de mayo de 1962, de conformidad con el artículo 14

La Conferencia General de la Organización de las Naciones Unidas para la Educación, la Ciencia y la Cultura, en su undécima reunión, celebrada en París, del 14 de noviembre al 15 de diciembre de 1960,

Recordando que la Declaración Universal de Derechos Humanos afirma el principio de que no deben establecerse discriminaciones y proclama el derecho de todos a la educación,

Considerando que las discriminaciones en la esfera de la enseñanza constituyen una violación de derechos enunciados en la Declaración Universal de Derechos Humanos,

Considerando que, según lo previsto en su Constitución, la Organización de las Naciones Unidas para la Educación, la Ciencia y la Cultura se propone instituir la cooperación entre naciones a fin de asegurar el respeto universal de los derechos humanos y una igualdad de posibilidades de educación,

Consciente de que, en consecuencia, incumbe a la Organización de las Naciones Unidas para la Educación, la Ciencia y la Cultura, con el debido respeto a la diversidad de sistemas educativos nacionales, no sólo proscribir todas las discriminaciones en la esfera de la enseñanza, sino también procurar la igualdad de posibilidades y de trato para todas las personas en esa esfera,

Habiendo recibido propuestas sobre los diferentes aspectos de las discriminaciones en la enseñanza, cuestión que constituye el punto 17.1.4 del orden del día de la reunión,

Después de haber decidido, en su décima

Irakaskuntza esparruan diren bereizkerien aurkako borrokari buruzko Konbentzioa

Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundearen Konferentzia Orokorrak 1960ko abenduaren 14an onetsia.

Indarrean jartzea: 1962ko maiatzaren 22an, 14. artikulurekin bat etorritz.

Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundearen Konferentzia Orokorrak, Parisen egin duen hamaikagarren bileran, 1960ko azaroaren 14tik abenduaren 15era,

Gogoratuz Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak bereizkeriarik ezarri behar ez delako printzipioa baieztatzen duela eta, orobat, guztiek duten hezkuntzarako eskubidea aldarrikatzen duela,

Kontuan harturik irakaskuntza esparruko bereizkeriak Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean jasotako eskubideen urratzeak direla ,

Kontuan harturik bere Konstituzioan arautzen denaren arabera, Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundeak nazioen arteko lankidetzaz ezartzeko asmoa daukala, giza eskubideen errespetu unibertsala ziurtatzeko eta hezkuntzako aukera berdintasuna ziurtatzeko helburuarekin,

Jakitun izanik, horren ondorioz, Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundeari dagokiola, hezkuntza sistema nazional bakoitzari eta guztiei zor zaien errespetuarekin, irakaskuntza esparruan bereizkeria guztiak galarazteaz gain, esparru horretan pertsona guztientzat aukera eta tratu berdinak egon daitezela lortzea,

Proposamenak jaso ondoren, irakaskuntzan diren bereizkerien inguruko ikuspegi ezberdinen aldetik, hain zuzen ere, bileraren aztergaien zerrendako 17.1.4 puntua den gaiaren ingurukoak, Erabaki ondoren bere hamargarren bileran

reunión, que esta cuestión sería objeto de una convención internacional y de recomendaciones a los Estados Miembros, Aprueba hoy, catorce de diciembre de 1960, la presente Convención:

Artículo 1

1. A los efectos de la presente Convención, se entiende por "discriminación" toda distinción, exclusión, limitación o preferencia fundada en la raza, el color, el sexo, el idioma, la religión, las opiniones políticas o de cualquier otra índole, el origen nacional o social, la posición económica o el nacimiento, que tenga por finalidad o por efecto destruir o alterar la igualdad de trato en la esfera de la enseñanza y, en especial:

- a) Excluir a una persona o a un grupo del acceso a los diversos grados y tipos de enseñanza;
- b) Limitar a un nivel inferior la educación de una persona o de un grupo;
- c) A reserva de lo previsto en el artículo 2 de la presente Convención, instituir o mantener sistemas o establecimientos de enseñanza separados para personas o grupos; o
- d) Colocar a una persona o a un grupo de personas en una situación incompatible con la dignidad humana;

2. A los efectos de la presente Convención, la palabra "enseñanza" se refiere a la enseñanza en sus diversos tipos y grados, y comprende el acceso a la enseñanza, el nivel y la calidad de ésta y las condiciones en que se da.

Artículo 2

En el caso de que el Estado las admita, las situaciones siguientes no serán consideradas como constitutivas de discriminación en el sentido del artículo 1 de la presente Convención:

- a) La creación o el mantenimiento de sistemas o establecimientos de enseñanza separados para los alumnos de sexo masculino y para los de sexo femenino, siempre que estos sistemas o establecimientos ofrezcan facilidades

gai hau nazioarteko konbentzio baten eta estatu kideentzako gomendioen objektua izango zela,

Gaur, 1960ko abenduaren hamalauan, Konbentzio hau onesten du:

1. artikulua

1. Konbentzio honen ondorioetarako, "bereizkeria" esamoldea honetara ulertzen da: arraza, kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoak edo beste izaera batekoak, nazio- edo gizarte-jatorria, ekonomia-maila edo jaiotzan oinarritutako bereizketa, bazterketa, mugaketa edo lehentasun oro, horien ondorio edo xedea delarik irakaskuntza esparruan tratu berdintasuna deuseztatzea edo aldaraztea eta, bereziki:

- a) Pertsona bat edo talde bat irakaskuntza maila eta mota ezberdinetatik kanpo uztea;
- b) Pertsona bat edo talde bat behe-mailako heziketara mugatzea;
- c) Konbentzio honen 2. artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe, pertsona edo taldeentzat irakaskuntza sistema edo establezimendu bereziak eratu edo mantentzea; edo
- d) Pertsona bat edo talde bat giza duintasunarekin bateraezina den egoeran jartzea;

2. Konbentzio honen ondorioetarako, "irakaskuntza" hitza hurrengoari dagokio: irakaskuntza beraren mota eta mailak, eta barneratzen ditu hala irakaskuntza bidean sartzeari, nola irakaskuntzaren neurria, kalitatea eta berori zein baldintzatan ematen den.

2. artikulua

Ondorengo egoerak ez dira bereizkeria gisa kontsideratuko Konbentzio honen 1. artikulua araberako, estatuak egoera horiek onesten dituen kasuetan:

- a) Irakaskuntza sistema edo establezimendu bereziak eratu edo mantentzea gizon eta emakume ikasleentzat, betiere sistema edo establezimendu horiek irakaskuntza bidean sartzeko erraztasun baliokideak eskaintzen

equivalentes de acceso a la enseñanza, dispongan de un personal docente igualmente calificado, así como de locales escolares y de un equipo de igual calidad y permitan seguir los mismos programas de estudio o programas equivalentes;

b) La creación o el mantenimiento, por motivos de orden religioso o lingüístico, de sistemas o establecimientos separados que proporcionen una enseñanza conforme a los deseos de los padres o tutores legales de los alumnos, si la participación en esos sistemas o la asistencia a estos establecimientos es facultativa y si la enseñanza en ellos proporcionada se ajusta a las normas que las autoridades competentes puedan haber fijado o aprobado particularmente para la enseñanza del mismo grado;

c) La creación o el mantenimiento de establecimientos de enseñanza privados, siempre que la finalidad de esos establecimientos no sea la de lograr la exclusión de cualquier grupo, sino la de añadir nuevas posibilidades de enseñanza a las que proporciona el poder público, y siempre que funcionen de conformidad con esa finalidad, y que la enseñanza dada corresponda a las normas que hayan podido prescribir o aprobar las autoridades competentes, particularmente para la enseñanza del mismo grado.

Artículo 3

A fin de eliminar o prevenir cualquier discriminación en el sentido que se da a esta palabra en la presente Convención, los Estados Partes se comprometen a:

a) Derogar todas las disposiciones legislativas y administrativas y abandonar todas las prácticas administrativas que entrañen discriminaciones en la esfera de la enseñanza;

b) Adoptar las medidas necesarias, inclusive disposiciones legislativas, para que no se haga discriminación alguna en la admisión de los alumnos en los establecimientos de enseñanza;

c) No admitir, en lo concerniente a los gastos de matrícula, la adjudicación de

badituzte, maila berean egoki diren irakasleak badituzte, bai eta kalitate bereko eskola-lokalak eta -ekipamenduak eta ikasketa programa berdinak edo baliokideak jarraitzea ahalbidetzen badute;

b) Erlijio edo hizkuntza arrazoiak direla bide, sistema edo establezimendu bereiziaz sortu edo mantentzea, horiek ikasleen guraso edo lege-tutoreen nahien arabera irakaskuntza eskaintzen badute, sistema horietan parte hartzea edo establezimendu horietara joatea aukerazkoa bada eta horietan eskaintzen den irakaskuntza agintari eskudunek gradu bereko irakaskuntzarako ezarri edo onetsi izan dituzten arauen arabera bada;

c) Irakaskuntza establezimendu pribatuak sortu edo mantentzea, betiere establezimendu horien helburua ez bada edozein talde baztertzera, baizik eta botere publikoak eskaintzen duen irakaskuntzari aukera berriak gehitzea, eta berebat, xede horren arabera badihardute, eta agintari eskudunek agindu edo onetsitako arauekin bat badatoz, bereziki gradu bereko irakaskuntzarako ezarritakoekin.

3. artikulua

Konbentzio honetan bereizkeria hitzari ematen zaion esanahian edozein bereizkeria ezabatu eta saihesteko helburuarekin, estatu alderdiek ondorengo konpromisoa hartzen dute:

a) Irakaskuntza esparruan bereizkeria dakarten legeria xedapen eta administrazio xedapen guztiak indargabetzeko eta administrazio eginera guztiak baztertzeko,

b) Beharrezko neurriak hartzeko, legeria xedapenak barne, irakaskuntza establezimenduetan ikasleak onartzerakoan inolako bereizkeriarik gerta ez dadin;

c) Botere publikoek inolako tratu ezberdinik ez egiteko, nazioko biztanleen artean, dela

becas o cualquier otra forma de ayuda a los alumnos, ni en la concesión de permisos y facilidades que puedan ser necesarios para la continuación de los estudios en el extranjero, ninguna diferencia de trato entre nacionales por los poderes públicos, salvo las fundadas en el mérito o las necesidades;

d) No admitir, en la ayuda, cualquiera que sea la forma que los poderes públicos puedan prestar a los establecimientos de enseñanza, ninguna preferencia ni restricción fundadas únicamente en el hecho de que los alumnos pertenezcan a un grupo determinado;

e) Conceder, a los súbditos extranjeros residentes en su territorio, el acceso a la enseñanza en las mismas condiciones que a sus propios nacionales.

Artículo 4

Los Estados Partes en la presente Convención se comprometen, además, a formular, desarrollar y aplicar una política nacional encaminada a promover, por métodos adecuados a las circunstancias y las prácticas nacionales, la igualdad de posibilidades y de trato en la esfera de la enseñanza y, en especial, a:

a) Hacer obligatoria y gratuita la enseñanza primaria, generalizar y hacer accesible a todos la enseñanza secundaria en sus diversas formas; hacer accesible a todos, en condiciones de igualdad total y según la capacidad de cada uno, la enseñanza superior; velar por el cumplimiento por todos de la obligación escolar prescrita por la ley;

b) Mantener en todos los establecimientos públicos del mismo grado una enseñanza del mismo nivel y condiciones equivalentes en cuanto se refiere a la calidad de la enseñanza proporcionada;

c) Fomentar e intensificar, por métodos adecuados, la educación de las personas que no hayan recibido instrucción primaria o que no la hayan recibido en su totalidad, y permitirles que continúen sus estudios en función de sus aptitudes;

matrikula gastuei, bekei edo ikasleei laguntza emateko beste edozein moduei dagokienez, dela atzerrian ikasketak jarraitzeko beharrezkoak izan daitezkeen baimen eta erraztasunak emateari dagokionez, meritu eta beharizanetan oinarritutakoak salbu;

d) Botere publikoek ez dute onartuko irakaskuntza establezimenduei eman diezaieketen laguntzan, horren forma edozein izanik ere, inolako lehentasun edo murrizketarik, horien oinarri bakarra bada ikasleak talde jakin bateko kide izatea;

e) Bere lurraldean bizi diren atzerritarrei, bere naziokoek dituzten baldintza berdinetan hezkuntza bidean sartzeko aukera ematea.

4. artikulua

Konbentzio honetako estatu alderdiek konpromisoa hartzen dute, orobat, inguruabar eta eginera nazionalen arabera metodo egokiak erabiliz, irakaskuntzaren esparruan aukera eta tratu berdintasuna sustatzera zuzendutako politika nazionala eratu, garatu eta aplikatzera, eta bereziki:

a) Lehen mailako irakaskuntza nahitaezko eta dohaineko bilakatzea, eta bigarren mailako irakaskuntza, bere forma ezberdinetan guztiontzat eskuragarri jartzea eta orokortzea; goi mailako irakaskuntzari dagokionez, guztioi bertan sartzeko aukera ematea, baldintza berdinetan eta bakoitzaren gaitasunaren arabera; legeak agindutako eginbeharra, hain zuzen ere, eskolara joatekoa guztiek bete dezaten ziurtatzea;

b) Gradu bereko establezimendu publiko guztietan maila berekoa den eta baldintza baliokideak dituen irakaskuntza bermatzea, batez ere horren kalitateari dagokionez;

c) Metodo egokiak erabiliz, lehen irakaskuntza guztiz edo zatiren batean jaso ez duten pertsonen hezkuntza sustatu eta areagotzea, eta bakoitzaren gaitasunen arabera ikasketak jarraitzeko aukera ematea;

d) Velar por que, en la preparación para la profesión docente, no existan discriminaciones.

Artículo 5

1. Los Estados Partes en la presente Convención convienen:

a) En que la educación debe tender al pleno desenvolvimiento de la personalidad humana y a reforzar el respeto de los derechos humanos y de las libertades fundamentales, y que debe fomentar la comprensión, la tolerancia y la amistad entre todas las naciones y todos los grupos raciales o religiosos, y el desarrollo de las actividades de las Naciones Unidas para el mantenimiento de la paz;

b) En que debe respetarse la libertad de los padres o, en su caso, de los tutores legales, 1º de elegir para sus hijos establecimientos de enseñanza que no sean los mantenidos por los poderes públicos, pero que respeten las normas mínimas que puedan fijar o aprobar las autoridades competentes, y 2º de dar a sus hijos, según las modalidades de aplicación que determine la legislación de cada Estado, la educación religiosa y moral conforme a sus propias convicciones; en que, además, no debe obligarse a ningún individuo o grupo a recibir una instrucción religiosa incompatible con sus convicciones;

c) En que debe reconocerse a los miembros de las minorías nacionales el derecho a ejercer actividades docentes que les sean propias, entre ellas la de establecer y mantener escuelas y, según la política de cada Estado en materia de educación, emplear y enseñar su propio idioma, siempre y cuando:

i) Ese derecho no se ejerza de manera que impida a los miembros de las minorías comprender la cultura y el idioma del conjunto de la colectividad y tomar parte en sus actividades, ni que comprometa la soberanía nacional;

ii) El nivel de enseñanza en estas escuelas no sea inferior al nivel general prescrito o aprobado por las autoridades competentes;

d) Irakasle izateko prestakuntzan, bereizkeriarik egon ez dadin lan egitea.

5. artikulua

1. Konbentzio honetako estatu alderdiek ondorengo erabakitzen dute:

a) Hezkuntzak giza nortasunaren garapen osorantz jo behar duela eta giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen errespetua indartu, eta nazio guztien eta arraza edo erlijio talde guztien artean elkar ulertzea, tolerantzia eta adiskidetasuna sustatu behar dituela, eta orobat, bakea mantentzeko Nazio Batuek egiten dituzten ekintzen ibilbidea;

b) Gurasoen askatasuna, eta hala denean, lege-tutoreen askatasuna ere errespetatu behar dela ondorengo gaietan: 1) euren seme-alabentzat botere publikoek mantentzen ez dituzten irakaskuntza establezimenduak aukeratzea, baina horiek agintari eskudunek ezarri edo onets ditzaketen gutxieneko arauak errespetatu behar dituzte, eta 2) euren seme-alabei ematea, estatu bakoitzeko legeriak ezarritako aplikazio-modalitateen barruan, euren sinesmen propioen arabera erlijio eta moral heziketa; eta gainera, horretan ezin da norbanakorik edo talderik behartu bere sinesmenekin bateraezina den erlijio heziketarik jasotzera;

c) Gutxiengo nazionalen kideei aitortu behar zaie berezkoak dituzten irakaskuntza jardueretan aritzeko eskubidea, horien artean direla ikastetxeak sortu eta mantentzea eta, estatu bakoitzak hezkuntzan duen politikaren arabera, euren berezko hizkuntza erabili eta irakastea, betiere:

i) Eskubide hau egikaritzeak ezin du oztopatu gutxiengo kideek kolektibitatearen kultura eta hizkuntza ulertzea eta horien ekintzetan parte hartzea, eta eskubide horren egikaritzak ezin du nazioaren subiranotasuna arriskuan jarri;

ii) Ikastetxe horietako irakaskuntza maila ez da izango agintari eskudunek ezarri edo onetsitako maila orokorra baino

iii) La asistencia a tales escuelas sea facultativa.

2. Los Estados Partes en la presente Convención se comprometen a tomar todas las disposiciones necesarias para garantizar la aplicación de los principios enunciados en el párrafo 1 de este artículo.

Artículo 6

Los Estados Partes en la presente Convención se comprometen a prestar, en la aplicación de la misma, la mayor atención a las recomendaciones que pueda aprobar la Conferencia General de la Organización de las Naciones Unidas para la Educación, la Ciencia y la Cultura con el fin de definir las medidas que hayan de adoptarse para luchar contra los diversos aspectos de las discriminaciones en la enseñanza y conseguir la igualdad de posibilidades y de trato en esa esfera.

Artículo 7

Los Estados Partes en la presente Convención deberían indicar, en informes periódicos que habrán de someter a la Conferencia General de la Organización de las Naciones Unidas para la Educación, la Ciencia y la Cultura, en las fechas y en la forma en que ésta determine, las disposiciones legislativas o reglamentarias, y las demás medidas que hubieren adoptado para aplicar la presente Convención, inclusive las que hubieren adoptado para formular y desarrollar la política nacional definida en el artículo 4, los resultados obtenidos y los obstáculos que hayan encontrado en su aplicación.

Artículo 8

Cualquier controversia entre dos o varios Estados Partes en la presente Convención respecto a su interpretación o aplicación que no se hubiere resuelto mediante negociaciones, se someterá, a petición de las partes en la controversia, a la Corte Internacional de Justicia para que resuelva al respecto, a falta de otro procedimiento para resolver la controversia.

Artículo 9

beheragokoa;

iii) Ikastetxe horietara joatea aukerakoa izatea.

2. Konbentzio honetako estatu alderdiek konpromisoa hartzen dute artikulua honetako 1. paragrafoan jasotako printzipioen ezarpena bermatzeko beharrezko diren xedapen guztiak onesteko.

6. artikulua

Konbentzio honetako estatu alderdiek konpromisoa hartzen dute, beronen aplikazioan, Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundearen Konferentzia Orokorra onets ditzakeen gomendioei arretarik handiena emateko, irakaskuntzan gerta daitezkeen bereizkeria mota ezberdinen aurka borrokan hartu beharreko neurriak definitzeko xedearekin eta esparru horretan aukera eta tratu berdintasuna lortzeko xedearekin.

7. artikulua

Konbentzio honetako estatu alderdiek Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundearen Konferentzia Orokorren eskuetan jarri beharko dituzten aldizkako txostenetan, adierazi beharko lukete, hark zehaztutako data eta moduan, zein diren legeria edo erregelamendu xedapenak, eta Konbentzio hau aplikatzeko hartu dituzten gainontzeko neurriak, horien barne direla 4. artikuluan zehaztutako politika nazionala formulatu eta garatzeko hartu beharko lirakeenak, aurrekoen bidez lortutako emaitzak eta horien aplikazioan izan dituzten oztopoak.

8. artikulua

Konbentzio honetako bi edo zenbait estatu alderdiren arteko edozein eztabaida, negoziazioen bidez konpondu ez dena eta Konbentzioaren interpretazio edo aplikazioari dagokiona, eztabaidan parte diren alderdiek hala eskatuta, Nazioarteko Justizia Gortearen mende jarriko da hark erabaki dezan, eztabaida konpontzeko bestelako prozedurarik ez dagoen heinean.

9. artikulua

No se admitirá ninguna reserva a la presente Convención.

Artículo 10

La presente Convención no tendrá por efecto menoscabar los derechos de que disfruten los individuos o los grupos en virtud de acuerdos concertados entre dos o más Estados, siempre que esos derechos no sean contrarios a la letra o al espíritu de la presente Convención.

Artículo 11

La presente Convención ha sido redactada en español, francés, inglés y ruso; los cuatro textos son igualmente auténticos.

Artículo 12

1. La presente Convención será sometida a los Estados Miembros de la Organización de las Naciones Unidas para la Educación, la Ciencia y la Cultura para su ratificación o aceptación de conformidad con sus respectivos procedimientos constitucionales.

2. Los instrumentos de ratificación o de aceptación serán depositados en poder del Director General de la Organización de las Naciones Unidas para la Educación, la Ciencia y la Cultura.

Artículo 13

1. La presente Convención estará abierta a la adhesión de cualquier Estado que no sea miembro de la Organización de las Naciones Unidas para la Educación, la Ciencia y la Cultura y que sea invitado a adherirse a ella por el Consejo Ejecutivo de la Organización.

2. La adhesión se hará mediante el depósito de un instrumento de adhesión en poder del Director General de la Organización de las Naciones Unidas para la Educación, la Ciencia y la Cultura.

Artículo 14

La presente Convención entrará en vigor tres meses después de la fecha en que se deposite el tercer instrumento de ratificación, aceptación o adhesión, pero únicamente respecto de los Estados que hubieren depositado sus respectivos instrumentos de ratificación, aceptación o adhesión en esa fecha o anteriormente.

Ez da onetsiko Konbentzio honi egindako ezelako erreserbarik.

10. artikulua

Konbentzio honek ez du ondorio gisa ekarriko norbanakoek edo taldeek dituzten eskubideak gutxiestea, horiek bi estatu edo gehiagoren arteko itunen bidez sortu badira, eta eskubide horiek Konbentzio honen testu edo espirituaren aurkakoak ez badira.

11. artikulua

Konbentzio hau espainieraz, frantsesez, ingelesez eta errusieraz idatzi da; lau testuak kautoak dira.

12. artikulua

1. Konbentzio hau Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundearen estatu alderdien menpe jarriko da, berori berretsi edo onets dezaten, bakoitzaren prozedura konstituzionalarekin bat etorri.

2. Berrespen edo onepen instrumentuak Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundearen zuzendari orokorraren esku utziko dira, hark gordailutu ditzan.

13. artikulua

1. Konbentzio hau zabalik egongo da Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundearen kide ez den edozein estaturen atxikipena jasotzeko, horretarako gonbitea izan badu, Erakundearen Kontseilu Betearazleak egina.

2. Atxikipena egiteko, Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundearen zuzendari orokorraren esku utziko da atxikipen instrumentu bat, hark gordailutu dezan.

14. artikulua

Konbentzio hau indarrean jarriko da hirugarren berrespen, onepen edo atxikipen instrumentu gordailutu eta hiru hilabetera, baina bakarrik data horretan edo lehenago berrespen, onepen edo atxikipen instrumentu gordailutu duten estatuekiko.

Asimismo, entrará en vigor respecto de cada uno de los demás Estados tres meses después del depósito de su instrumento de ratificación, aceptación o adhesión.

Artículo 15

Los Estados Partes en la presente Convención reconocen que ésta es aplicable no sólo en su territorio metropolitano, sino también en todos aquellos territorios no autónomos, en fideicomiso, coloniales o cualesquiera otros cuyas relaciones internacionales tengan a su cargo.

Los Estados Partes se comprometen a consultar, si fuera necesario, al gobierno o demás autoridades competentes de esos territorios, antes o en el momento de la ratificación, aceptación o adhesión, para obtener la aplicación de la Convención a esos territorios, y a notificar al Director General de la Organización de las Naciones Unidas para la Educación, la Ciencia y la Cultura a qué territorio se aplicará la Convención, notificación que surtirá efecto tres meses después de recibida.

Artículo 16

1. Todo Estado Parte en la presente Convención tendrá la facultad de denunciarla en su propio nombre o en el de cualquier territorio cuyas relaciones internacionales tenga a su cargo.

2. La denuncia será notificada mediante un instrumento escrito que se depositará en poder del Director General de la Organización de las Naciones Unidas para la Educación, la Ciencia y la Cultura.

3. La denuncia surtirá efecto doce meses después de la fecha de recibo del correspondiente instrumento de denuncia.

Artículo 17

El Director General de la Organización de las Naciones Unidas para la Educación, la Ciencia y la Cultura informará a los Estados Miembros de la Organización, a los Estados no miembros a que se refiere el artículo 13 y a las Naciones Unidas, del depósito de cualquiera de los instrumentos de ratificación, aceptación o adhesión a que se refieren los artículos 12 y 13, así

Era berean, gainontzeko estatu bakoitzarekiko, indarrean jarriko da haren berrespen, onespen eta atxikipen instrumentu gordailutu eta hiru hilabetera.

15. artikulua

Konbentzio honetako estatu alderdiek aitortzen dute Konbentzioa bere metropoli lurraldean ez ezik, autonomoak ez diren lurraldeetan, fideikomisoan, kolonietan edo beste edozein lurraldetan ere aplikatuko dela, horien nazioarteko harremanak bere esku badaude.

Estatu alderdiak kontsulta egiteko konpromisoa hartzen dute, halakoa beharrezkoa izango balitz, lurralde horietako gobernuari edo gainontzeko agintari eskudunei, berrespen, onespen edo atxikipen unean edo hori baino lehenago, Konbentzioa lurralde horietan aplikatzeko, eta Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundearen zuzendari nagusiari jakinarazteko Konbentzioa zein lurraldetan aplikatuko den; jakinarazpenak jasotze datatik hiru hilabetera izango ditu ondorioak.

16. artikulua

1. Konbentzio honetako estatu alderdi oro, berori salatze ahalmena izango du bere izenean edo beste lurralde baten izenean, lurralde horren nazioarteko harremanak bere esku baditu.

2. Salaketa, Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundearen zuzendari orokorraren esku utziko den instrumentu idatzi baten bitartez jakinaraziko da, hark gordailutu dezan.

3. Salaketak ondorioak sortuko ditu, salaketa instrumentuaren jasotze datatik hamabi hilabetera.

17. artikulua

Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundearen zuzendari nagusiak informatuko ditu, dela Erakundearen estatu alderdiak, dela 13. artikulua arabera alderdi ez diren estatuak, dela, azkenez ere, Nazio Batuak, 12 eta 13. artikuluan aipatzen diren berrespen, onespen edo atxikipen instrumentuen gordailuaren inguruan, bai eta 15 eta 16. artikuluetan

como de las notificaciones y denuncias previstas en los artículos 15 y 16 respectivamente.

Artículo 18

1. La presente Convención podrá ser revisada por la Conferencia General de la Organización de las Naciones Unidas para la Educación, la Ciencia y la Cultura.

No obstante, la revisión no obligará sino a los Estados que lleguen a ser Partes en la Convención revisada.

2. En el caso de que la Conferencia General aprobara una nueva convención que constituya una revisión total o parcial de la presente Convención, y a menos que la nueva convención disponga otra cosa, la presente Convención dejará de estar abierta a la ratificación, la aceptación o la adhesión desde la fecha de entrada en vigor de la nueva convención revisada.

Artículo 19

De conformidad con el Artículo 102 de la Carta de las Naciones Unidas, la presente Convención será registrada en la Secretaría de las Naciones Unidas a petición del Director General de la Organización de las Naciones Unidas para la Educación, la Ciencia y la Cultura.

Hecho en París, el quince de diciembre de 1960, en dos ejemplares auténticos, firmados por el Presidente de la undécima reunión de la Conferencia General, y por el Director General de la Organización de las Naciones Unidas para la Educación, la Ciencia y la Cultura, ejemplares que quedarán depositados en los archivos de la Organización de las Naciones Unidas para la Educación, la Ciencia y la Cultura y de los que se enviarán copias certificadas conformes a todos los Estados a que se hace referencia en los artículos 12 y 13, así como a las Naciones Unidas.

Lo anterior es el texto auténtico de la Convención aprobada en buena y debida forma por la Conferencia General de la Organización de las Naciones Unidas para la Educación, la Ciencia y la Cultura, en su undécima reunión, celebrada en París y terminada el quince de diciembre de 1960.

En fe de lo cual estampan sus firmas, en

zehaztutako jakinarazpen eta salaketa instrumentuei buruz, hurrenez hurren.

18. artikulua

1. Konbentzio hau Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundearen Konferentzia Orokorrek berrikus dezake.

Dena den, Konbentzio berrikusiaren alderdi izatera heltzen diren estatuei bakarrik eragingo dizkie berrikuspenak.

2. Konferentzia Orokorrek, konbentzio honen berrikuspen osoa edo zati batekoa onetsiz gero, konbentzio berri baten bidez, eta Konbentzio berriak beste zerbait ezartzen ez duen heinean, Konbentzio honek berrespen, onespren eta atxikipenerako zabalik egoteari utziko dio, Konbentzio berrikusi berria indarrean jartzen den datatik aurrera.

19. artikulua

Nazio Batuen Gutunaren 102. artikuluekin bat etorriz, Konbentzio hau Nazio Batuen Idazkaritzan erregistratuko da, Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundearen zuzendari nagusiak hala eskatuta.

Parisen egina, 1960ko abenduaren hamabostean, bi ale kautoetan, Konferentzia Orokorren hamaikagarren bileraren Buruak eta Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundearen zuzendari nagusiak sinatua, ale horiek Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundearen fitxategian gordailutuko dira, eta ale horien kopia ziurtatuak bidaliko zaizkie 12 eta 13. artikuluetan aipatzen diren estatu guztiei, bai eta Nazio Batuei ere.

Aurrekoa Konbentzioaren testu kautoa da, Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundearen Konferentzia Orokorrek forma egoki eta beharrezkoan onetsia, hamaikagarren bileran, Parisen egina eta 1960ko abenduaren hamabostean amaitu zena.

Horren fede emanez sinatu egiten dute,

este día quince de diciembre de 1960.

gaurko egunez, 1960ko abenduaren
hamabostean.